

Barbaroak eta jakintsuak Injustizia epistemikoak, inperialismoa eta euskaldunak

Unai Bayon Aranburu
Filosofian graduatua

Zubi baten atarian: Frickerrengandik Azurmendirengana

Irakurleak eskutan duen artikulu honen helburua zubi bat eraikitzea da. Joxe Azurmendik proposaturiko ur-jauziarekin jarraituz, euskal pentsamenduaren eta filosofian mundu mailan bero-bero dagoen gai baten arteko lotura egiten ahaleginduko naiz bertan: Miranda Frickerren injustizia epistemikoen auzia euskaldunon historian zehar kokatzea, alegia.

Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak* (1992) obra aztertzean, berehala ohartu nintzen ekarpen hori erabilgarria dela xede horretarako. Euskaldunon eta espainiarren arteko harreman historikoa injustizia epistemikoen bitartez aztertuz, gako garrantzitsuak azaltzen dira ulertzeko zergatik, denbora luzez, euskaldunok ez dugun kultura ekoizpen garrantzitsurik izan. Fricker eta Azurmendi elkarren alboan jartzean, gure historiaren inguruko argibide berezi batzuk ikus daitezke. Euskal Herrian baditugu mundu mailako pentsalariak bezain onak direnak (hobeak ere), eta bada garaia pentsalari horien ekarpenak aldarrikatzeko, euskal pentsamenduaren ur-jauziak gainezka egin dezan.

Proposamen hori aurrera eramateko, hasieran injustizia epistemikoen aurkezpen labur bat eskainiko dut, lanaren mamari oinarri filosofikoa ipintzeko. Hurrengo pausoa *Espainolak eta euskaldunak* obran bete-betean sartzea da. Euskaldunongan eta espainiarrengan sortu diren irudiak izango ditut aztergai, irudi horiek dakartzaten ondorio historikoak azaldu nahian. Izan ere, euskaldunongan txertatu ohi den *barbaro* irudi horrek Euskal Herria epistemikoki umezurtz utzi zuela argudiatuko dut.

Fricker eta bi injustizia epistemikoak

2007an Miranda Frickerrek *Epistemic Injustice. Power and Ethics of Knowledge* liburua argitaratu zuen, eta bertan *injustizia epistemiko* kontzeptua aurkeztu. Liburuko tesi nagusia ondorengoa da: identitate zapalduak, gainerako injustiziez gain, espresuki epistemikoak direnak ere sufritzen dituzte; horiek dira, hain zuzen, injustizia epistemikoak.

Izan ere, ariketa hori ez da arrazoi epistemikoengatik egiten, baizik eta arrazoi identitarioak dira mekanismo horren atzean operatzen duten elementu nagusiak. Den hori izateagatik, ezagutza-subjektu bezala norbait bidegabeki zalantzapean jartzean gertatzen den injustizia bezala definitzen ditu Frickerrek. Hori horrela, bi injustizia epistemiko mota bereizten dira: testigantza-injustizia eta injustizia hermeneutikoa. Lehen gertatzen da entzuleak hizlariaren sinesgarritasuna murrizten duenean identitate sozial baten parte izateagatik (Fricker 2017 [2007]: 41, 47). Bigarrena, aldiz, beti estrukturala da, eta hizlariaren esperientzia soziala ulertu eta interpretatzeko gizartean hutsune hermeneutikoak¹ daudenean gertatzen da (*ibid.*: 254). Frickerrek dio, bi injustizia horietan, azken kausa aurreiritzi identitario negatiboak direla.

Injustizia horien kalteei dagokienez, Frickerrek bi multzotan sailkatzen ditu. Alde batetik, lehen mailako kalteak ditugu, epistemikoak direnak. Konfiantza galera, frikzio epistemikoaren² gabezia, baliabide epistemikoak eskuratzeko ezintasuna... finean gaitasun epistemikoekin lotura duten horietan. Beste aldetik, bigarren mailakoak daude, kalte praktikoak. Lehen mailako kalteetatik erator daitezkeen bestelako kalteak dira horiek, alegia: lana eskuratzeko ezintasuna, sozializatzeko arazoak, gorputza egoera zaurgarriagoetan ipintzea...

Gaitasun epistemikoen kamustea eta injustizia epistemiko inperiala

Gradu Amaierako Lanean (Bayon 2019), injustizia epistemikoen eta pobreziaren arteko lotura ikertu nuen. Helburua injustizia epistemikoen literaturan zegoen gabezia bat betetzea zen; izan ere, inork ez zuen aztertu bi gai horien arteko harremana, eta nik intuitiboki sumatzen nuen zerbait berezia bazegoela bertan.

Hasteko, bien arteko harreman erreproduzitaileaz ohartu nintzen. Norabide batean, pobreak injustizia epistemikoak erreproduzitzen dituela ikusi nuen; izan ere, jada pobreen gaineko estigma sozialak dituzten aurreiritzi identitario negatiboak indartzeaz gain, berriak ere sortzen ditu (*ibid.*: 51). Aurrerako norabidean, injustizia epistemikoek pobreziaren erreproduzioan parte hartzen dute. Bazterketa epistemikoak eta horren ondorioz pairatzen diren kalte praktikoak maila sozialean gora egiteko trabak jartzen dituzte, eta horrek pobrezia erreproduzitzen du (*ibid.*).

Horrez gain, ikusi nuen Frickerrek proposatutako bi injustizia epistemikoetatik harago badagoela hirugarren injustizia epistemiko bat (oso kaltegarria izan daitekeena, gainera), pobreziaren kasuarekin oso adierazgarria dena: *gaitasun epistemikoen kamustea*. Pobrezia materialak ingurune kognitiboki pobreak ere sortzen ditu. Ingurune pobreetako bizimoduak ezartzen dituen mugen artean, muga epistemikoak ere badaude, eta bertan bizi direnek baliabide gutxiago dituzte gaitasun epistemiko *garatuagoak* eskuratzeko. Haslangerrek dioenez, «bizitza mentalak gure inguruneko praktika sozialak modu eramangarrian eraman ahal izateko egokitzen dira»³ (Haslanger 2018: 9), eta, horren ondorioz, ingurune pobreetan gertatzen den egokitzeak oztopoak jartzen ditu bestelako inguruneetan lor daitezkeen gaitasun epistemikoak erdiesteko. Horregatik, ingurune kognitiboki pobreetan hazi edo bizi izanagatik gaitasun epistemikoen kamuste bidegabe bat egon daiteke, eta hori testigantza-injustiziatik eta injustizia

hermeneutikotik harago koka daitekeen beste injustizia epistemiko bat dugu (Bayon 2019: 57-58). Ildo horretatik tiraka, injustizia epistemikoekin lotutako beste kontzeptu interesgarri bat datorkigu: injustizia epistemiko inperiala.

Aski ezaguna da, inperialismoaren tresnen artean, etsaiaren irudikapena egiten den modua oso garrantzitsua dela. Hain zuzen ere, Ekai Txapartegik tresna horien artean sartzen du *injustizia epistemiko inperiala* (Txapartegi 2020). Etsaia *irrazionaltasun* irudi batean kokatuz, hura konkistatzeko legitimitatea indartzen da, norberaren burua salbatzailatzat irudikatuz (ezjakintasunetik salbatzen duen hura, alegia).

Honetan datza estrategia: naturaz *motzagoak* diren horien eskubideak urratzea, arrazoimen edo kultura faltaren aitzakia baliatuz. Horrela, konkista legitimatzeaz gain, hori konkistatuen onerako dela argudiatzen da (*ibid.*: 2). Azurmendik dioen bezala: «Zapaldua bere onerako bakarrik zapaltzen du beti zapaltzaileak!» (Azurmendi 1992: 137). Noiz sortzen da injustizia epistemiko inperialaren beharra? Gizartearen pentsamoldea eta inperioaren praktikak kontraesanean erortzen direnean; izan ere, praktika horiek justifikatzeko beharra suertatzen da (Txapartegi 2020: 7-8). Zergatik da injustizia hori epistemikoa? Alde batetik, arrazoi epistemikoek justifikatzen dutelako; eta, bestetik, konkistatuen izaera agentziala kaltetzen da, ez baitira ezagutza-subjektu bezala (guztiz) aitortuak.

Injustizia epistemiko inperialaren ondorio larrienetariko bat Grosfoguel-ek proposatutako *epistemizidioa* izan daiteke (Grosfoguel 2013: 74). Azken finean, herri konkistatua irrazional edo kultura falta bezala identifikatzean, euren sistema epistemiko eta kulturalen gaineko errespetu guztia desagertu egiten da. Horren ondorioz, edo sarraski fisikoak justifika daitezke (ezagutza-sistema horien desagertpena ekarriz), edo, asimilazio kulturalaren ondorioz ere, sistema horiek desagerrarazten dira. Sistema epistemiko horien sarraskia, izan sarraski fisiko batetik edo asimilazio baten ondorio, epistemizidioa litzateke: mundu ikuskera baten galera.

Espainolak eta euskaldunak: injustizia epistemikoen historia bat

Jarraian datorren atalean, Espainiaren naziotasunaren eta espainolaren irudiaren sorkuntzaz jardungo dut, eta bertan euskaldunaren karikatura irudia nola kontrajartzen zaion aztertu. Halaber, espainiar inperioak bere sorkundetik erabili dituen mekanismo inperialak ere azter daitezke ikuspuntu horretatik (horien artean injustizia epistemikoak baitaude).

Objektutze historikoaren garapena

Euskaldunon irudia nola sortu den ulertzeko, historian zehar objektutzeak nola garatu diren ikusi behar da aurretik.

Haslangerrek proposatu zuen *objektutze epistemikoa*: «talde baten ahultasun epistemiko erreal edo faltsuak modu okerrean talde horren naturari edo esentziari lotzen zaizkionean»⁴ (Haslanger 2017: 280). Azken finean, injustizia epistemikoak

pairatzen dituen taldea epistemikoki *ezgai* bezala hartzen da, hau da, objektutze epistemiko bat pairatzen du. Orokorrean, bestelako objektutzeekin batera gertatzen da (objektutze sexuala, adibidez), eta horrek objektutze ariketa egiten duen horri boterea ematen dio talde edo pertsona bati ezaugarri jakin batzuk atxikitze. Ezaugarri horiek, normalean, objektutzearen arduradun den horren desirei erantzuten diete (Haslanger 2002: 228).

Historian zehar, zibilizatu/barbaro eskema izan da objektutzeen ardatz nagusia.⁵ Greziarrak izan ziren lehenak zibilizatu/barbaro eskema erabiltzen. Euren ustez, grekoz hitz egiten ez zuena kulturagabea zen, eta kulturarik ez zuena basapiztia. Erromatarrek eskema hori oinordetu zuten. Ondoren, kristautasunaren gailentasunarekin, *erlijio zuzenaren* ideia ardatz horretan sartu zen, paganoak barbaro bilakatu. Erromaren oinordeko izan ziren barbaro bataiatu horiek (Azurmendi 1992: 48, 64, 121) erromanismoan eta kristautasunean finkatu zuten elementu objektibatzaile nagusia.

Logika horietan argi ikus daiteke injustizia epistemiko inperialaren presentzia. Erresuma godoez euren burua zibilizazioan eta erlijio zuzenean kokatuz, konkistarako tresna legitimatzailea eskuratzen zuten: «Inperialismoa, espantsionismoa, ez da misio apostolikoa besterik izanen» (*ibid.*: 91).

Injustizia epistemikoen erregaia: euskaldunaren eta espainolaren irudien sorrera

Nortzuk ziren euskaldunak testuinguru horretan? Bada, ez zibilizatuak, ezta kristauak ere: «basapiztia beltz eta traidorea dela, barbaro maltzurra, tranposoa, fida ezinezkoa, zitala» (*ibid.*: 103).

Erresuma godoen eta baskoien arteko liskarrak etengabeak ziren Erdi Aroko lehen mendeetan. Franko eta bisigodoen joera espantsionistak baskoien erresistentziarekin egiten zuen topo behin baino gehiagotan. Testuinguru horretan, injustizia epistemikoen erregaia izango den euskaldunen irudia sortzen hasi zen, euskaldunen ezaugarri barbaroak objektibatu eta naturalizatuz: euskalduna esentziaz barbaroa zen.

Hiru mailatan zen barbaroa euskalduna (*ibid.*: 118). Lehen mailan, hizkuntza zuen barbaroa. Euskara ez denez latinaren oinorde, hizkuntza pobretzat jotzen zuten. Jainkoarengana gerturatzeko ere ez zuen balio. Hizkuntzaren mugak zirela-eta, hori hitz egiten zuenak ere mugak zituen. Horregatik, euskalduna motz bilakatzen zen, bere natura barbaroaz gain, hizkuntza ere pobrea zuelako. Bigarren mailan, euskalduna bera zen barbaroa: zikin, ilun, iletsu, fidagaitz, faltsu, maltzur, traidore, diruzale... Eta, hirugarren mailan, ingurunea bera ere barbaroa zen: menditsua, lainotsua, baso itxiak... Zibilizazio arrastorik ezin zen aurkitu herri hartan.⁶

Godok zibilizatuen aurkakoa zen irudi horren finkapena eta Europarako zabalpena Donejakueko monasterioei esker gertatu zen (*ibid.*: 105). Garai haietan, monasterio horietatik erromes ugari ibiltzen ziren, eta horiek garaiko egitura propagandistiko gisa jokatzen zuten. Erromes eta apaizen bidez, euskaldunen irudi hori Europan zabaldu zen.

Aurrekari horiekin, Espainia modernoaren eta espainolaren irudiari dagokionez, Pizkunde eta Aro Modernora egin behar dugu jauzi.

Hasteko, ulertu behar dugu estatu modernoaren sorrera zein ardatzetan oinarritu zen. Azurmendik ardatz horiek hiru direla dio: San Agustinen batasunaren ideia, Eliza eta Erroma (*ibid.*: 123-142). Objektutzearen ardatzekin bezala, estatu modernoak mundua erlijio eta inperio bakarrean batzeko asmoaren logikan sortu ziren. Horri, gainera, kultura nazionalen gorakada eta euren arteko norgehiagoka gehitu behar zaie. Erroma gainditzeko asmoak nagusi (*ibid.*: 167), barbaro/zibilizatu eskema etengabe zebilen indarrean, injustizia epistemiko inperialari atak irekiz.

«Munduan Espainia, Espainian Gaztela» (*ibid.*: 185), Errege-Erregina Katolikoak izan ziren proiektu moderno hori eraiki zuten lehenak, eta lehen etxeko lana Espainia osoa Gaztela izatea zen. Testuinguru horretan, Azurmendik «Espainol Txit Gorena» (*ibid.*: 201) bezala izendatu duen subjektua jaio zen, godoen modura, euskaldunei kontrajarriz. Barbaro/zibilizatu eskemaren bertsio modernoa.

Euskaldunon hizkuntza barbaroari espainiarren hizkuntza gaztelau aberatsa kontrajarri zitzaion, gaztelaniak pentsamendu abstrakturako eta Jainkoarengana hurbiltzeko baliabideak ematen baitizkio espainolari, euskarak egin ezin zezakeena. Tubalen oinordeen literaturaren urrezko mendea izanik (ez kasualitatez), literatura egiteko ere hizkuntza dotoreena zela babestu zuten, Europako gainerako hizkuntzak mesprextatuz (zeresanik ez penintsula barruko hizkuntzen inguruan). Gainera, greziarrengandik jasotako ideia geografikoak ere erabili zituzten euren irudi zibilizatu eta razionala indartzeko: Espainiako klima baitzen hoberena ariketa intelektual eta zibilizaturako. Nola egongo dira maila berean euskaldun barbaroak eta hizkuntza prestu, jatorri bibliko eta paradisuako lurraldea duten horiek?

Ikus daiteke espainiar noblearen irudi berria euskaldunaren irudia oinarritzen dituen hiru elementuekiko erabat kontrajarria dela: hizkuntza barbaroa eta hizkuntza zibilizatu, jatorri barbaroa eta jatorri biblikoa eta ingurune barbaroa eta ingurune intelektualki aproposa. Hori gutxi balitz, espainiar naziotasuna oinarritzen dituen beste hiru zutabeek etengabeko erkatzean jarriko dute espainiartasuna gainerako nazionalitateekin: «gorrotoa, kultur harrokeria eta misio berezi baten kontzientzia» (*ibid.*: 201). Erlijioak, hizkuntzak eta odol garbitasunaren ideiak elementu barneratzaile bezala jokatu dute espainiar nazionalismoaren sorreran (*ibid.*). Ez da ezberdintasunik onartzen, eta hortik kanpokoak gorrotatuak dira: mairuak, juduak, frantsesak... eta, noski, euskaldunak.

Hala, espainolaren eta espainiar naziotasunaren funtsak besterekiko kontrajartze eta ukazio etengabearen oinarritzen dira. Azurmendik ematen dizkigun gako horiekin uler daiteke ondoren Espainia modernoaren (eta garaikidearen) eraikuntzan zergatik naziotasuna gatazka ugariren iturri izan den. Idazlan honetarako, dena den, garrantzitsuena da espainiarraren eta euskaldunaren irudiak guztiz kontrajarriak geratu zirela: alde batetik, espainiar fededun, razional eta zibilizatu dugu; bestetik, euskaldun pagano, irrazional eta barbaroa. Kristaua ez dena barbaroa da. Gaztelania hitz egiten ez duena barbaroa da. Espainol ez dena barbaroa da. Euskaldunak barbaroak dira. Azken finean, norbait izateko, subjektu razional osoa izateko, beharrezkoa zen espainiar izatea eta gaztelaniaz hitz egitea; bestela, barbaro ezjakin bat baino gehiago izatea ezinezkoa zirudien.

Espainia modernoaren irudi berria finkatuz, espainiar inperialismoak hainbat mekanismo erabili zituen munduko eta penintsulako konkistak aurrera eramane eta legitimatzeko (indar militarrez gain).

Alde batetik, hizkuntz inperialismoa dugu (*ibid.*: 202). Aurretik aipatutako gaztelaniaren gehiagotasuna aitzakia bezala erabilia, hizkuntza gaztelaua inperio osoan zabaltzeari eta inposatzeari ekingo diote. Espainola ez dakiena barbarotzat hartuz (hura baitzen hizkuntza aproposa arrazoimen eta federako), horiei gaztelania erakustea fabore gisa identifikatzen zen. Barbaro eta indioak ebanjelizatu aurretik, espainolizatu egin behar ziren, bestela ezin baitziren Jainkoarengana hurbildu:

No existe Jaungoikua. No existe más que Dios. (Ibid.: 231)

... en la mejor y más perfecta lengua de los indios no se pueden explicar bien y con su propiedad los misterios de la fe, sino con grandes absones e imperfecciones. Areago, bere hizkuntzak ocasiones de idolatrias y otros vicios sortzen dizkio indioari: hizkuntzak berak txarkeriara darama. (Ibid.: 232)

Horrela, hizkuntzaren berdintze prozesua abian jarri zen, bai Iberiar penintsulan eta baita Ameriketara ere, dekretu eta gramatikaren garapenaren bidez.

Bigarren tresna nagusia espainiar zuzenbidea izan zen. Legearen indarra erabili zuen inperioak Espainia barneko desberdintasunak neutralizatzeko (*ibid.*: 208-214). Mairuen eta juduen aurka ez ezik, euskaldunen (eta beste nazionalitate zapalduen) hizkuntza, ohitura eta janzkeren aurkako dekretuak legeztatzen hasi ziren. Ez zegoen lekurik Espainia barruan espainola ez zen inorentzako.

Injustizia epistemikoekin lotutako beste mekanismoak ere erabili ziren garai horietan: estrategia hermeneutikoak. Espainiar iruditegitik euskaldunak eta euren nazioa izendatzeko kontzeptuak desagertuz eta aldatuz joan ziren mendeetan zehar, horien konnotazioa guztiz aldatuz. Errege-Erregina Katolikoen *nación separada*-tik *región vasca, provincias vascongadas*, eta abarretara igarotzea (*ibid.*: 484-485). Horrela, pixkanaka euskal naziotasunaren ideia espainiar pentsamendutik eta hizkuntzatik kanpo geratuz joan zen, baliabide hermeneutikoetan Euskal Herria Espainian guztiz integratuz, horrek dakartzan ondorio politikoekin batera.

Injustizia epistemiko inperial espainiarra (eta euskalduna)

Ondoriozta daiteke, beraz, espainiar inperioaren eta espainolaren irudiaren sorreran aurkitzen direla injustizia epistemiko inperialaren logikak. Godoengandik jasotako barbaro/zibilizatu eskema hori erreproduzitzen, espainiarra gainerakoei zibilizatu eta fededun gisa kontrajarri zitzaie. Espainia zen Jainkoaren herrialde zibilizatua, eta, horregatik, gainerakoak espainolizatzeko (zibilizatu eta kristautu) beharra eta eskubidea zuen.

Horrek guztiak berresten du, Txapartegik adierazi bezala, inperialismoak elementu legitimatzaileak aurkitu zituela bere konkistak aurrera eramateko. Espainola ez zena subjektu ez oso bezala aurkeztuz (*ibid.*: 213), ariketa inperialistak konkistatuaren mesederako aurkeztzen dira: espainiar izatea bada garaiena, jendea espainolizatzea fabore

bat egitea da. Ikusirik, gainera, euskaldunek zein irudi jasotzen zuten garai horretan, zaila zen euskaldunen espainolizazioaren aurka jartzea. Eta horixe bera gertatu zen.

Euskaldunon historian pairaturiko injustizia epistemikoen analisi honetan, figura berri bat agertu zen laster erreakzio gisa: apologistak. Pizkundeko eta Aro Modernoko logikan (gaztelauan) erabat sartu zen euskal noblezia landatar bat sortu zen garai haietan. Beharrezkoa zuten gaztelau nobleziaren artean eserleku erosoak eskuratzea, eta, horretarako, euskara eta euskal kulturaren beharrik ez zuten: nahikoa zuten euren interesak Gaztelan defendatuko zituen zilegitze-diskurtso bat (Gabilondo 2012: 14). Interes horiei men eginez sortu ziren euskal apologistak.

Apologistek euskaldunen historia noblea idazteari ekin zioten; euskaldun guztien nobletasuna eta euskararen garbitasuna defendatuz, herri ez konkistatu eta purua aurkitu zuten (Azurmendi 1992: 323-324). Paradoxikoki, ordea, euskararen garapenik ez dute bultzatuko, guztia gaztelaniaz idazten baitzuten, gaztelau gorteei zuzendutako testuak baitziren.

Zergatik zuten apologia hori egiteko beharra? Hain zuzen ere, euskal nobleak ere euskaldunek sufritzen zituzten injustizia epistemiko horien biktimak baziren, eta euskaldunen irudi estereotipatu hori gainditzeko apologia tresna egokia zitzaien.⁷ Gaztelan noble izateko aukera zutela frogatzea zen helburu bakarra, euskara guztiz instrumentalizatu. Horregatik, euskara, helburu baino, tresna bilakatu zen: «Gaztelako gortearen aurrean zilegitze-tresna ideologiko bihurtuko da» (Gabilondo 2012: 15). Barbaro iruditik ihes egitea zen helburu bakarra, gaztelau gortean integratu ahal izateko.

Hortik abiatuz, espainiar kultura eta gaztelania euskal jauntxoek familietan barneratu zen. Euskal jauntxoak espainol bilakatu ziren, «espainolik espainolenak» bihurtuz (Azurmendi 1992: 382, 393). Hala izanik, espainiar kultura, literatura eta hizkuntza barneratu, eta euskal kultura eta euskara erabat abandonatu zituzten: Inperioan integratu ziren.

Horrek ondorio garrantzitsuak ekarri zituen euskal lurraldeetara. Alde batetik, zibilizatu/barbaro eskema klasiko hori Euskal Herrian bertan aplikatzen hasi zen, espainol/euskaldun bereizketaren bitartez. Euskal jauntxo familia espainolizatuetan euskaldunen gaineko aurreiritziak nagusitzen hasi ziren, eurak gaztelania erabiltzen hasi baitziren «erdara ikasi eta 'ilustratu' direlakoan» (*ibid.*: 383). Euskaldun xeheak ez zuen euskara besterik.

Horrenbestez, Euskal Herrian bertan gaztelania hizkuntza ilustratua bilakatu zen, eta euskara, aldiz, ezjakinen eta pobreen hizkuntza. Aurretik godoengandik eta gaztelauengandik jasotzen ziren injustizia epistemiko eta irudi estereotipatu horiek Euskal Herrian bertan hauspotzen hasi ziren. Euskal jauntxoak euskararengatik lotsatzen hasi ziren, konplexuz betetako gaztelauak bilakatu.

Gainera, gaztelania tresna politiko ere bilakatu zen. Jauntxoek gaztelania bereganatu zutenean, bazekiten herri xeheak euskara bakarrik hitz egiten zuela. Sortutako berezitasun horretaz baliatuz, Euskal Herriko erakunde eta batzarretan gaztelania inposatzen hasi ziren, hura derrigorrezko bilakatu. Horrela, gaztelania ez zekienak (euskaldun pobrea) ezin zezakeen parte hartu Euskal Herriko botere egituretan. Klase dominantearen mesedetara, euskara bihurtu zuten «gehiengo subalternoari indar

politikoa kentzeko tresna zapaltzaile» (Gabilondo 2012: 15). Injustizia epistemiko inperiala dugu bete-betean.

Hizkuntza saldu eta kultura saldu. Horrela laburbil daiteke euskal jauntxoek jokaldia. Injustizia epistemiko inperialetik ihes egin nahian, Euskal Herriko pizkundera sakrifikatu zuten. Espainol Txit Gorenaren irudia bere egin, eta euskaldun barbaroaren irudia Euskal Herriko herri xeheari egotzi zioten.

Gaitasun epistemikoen kamustea euskaldunengan

Argi geratu da boterea eta dirua funtsezkoak direla injustizia epistemikoei (eta bestelako hainbat injustiziei, noski) aurre egiteko. Panorama horretan, euskaldun xeheak ez zuen baliabiderik ezjakin irudi horretatik ateratzeko. Euren gaineko estigmak eta estereotipoak erreproduzitzera kondenatuak ikusi zuten euren burua, euskaldun izateagatik eta pobre izateagatik.

Euskal lurraldeak txiroak ziren garai haietan, eta euskaldun askok alde egin behar izan zuten ogi bila. Esan beharra dago euskaldunon munduratzeko garai horrek haien gaineko aurreiritziak baieztatu zituela: euskaldunak marinel, mertzenario eta lan fisikoengatik ziren preziatuak, *buru-arintasunaren* ideia ez zen ezabatu. Euskaldunen gaineko burlak ere etengabeak ziren (Azurmendi 1992: 298-304). Herri eta kulturarik gabeko bezala ikusten zituzten euskaldunak (*ibid.*: 296, 298). Objektutzea eta naturalizazioa indarrean eta erabat erroturik, beraz.

Hori gutxi balitz, euskal lurraldeetan ez zegoen eskola edo unibertsitatearik, hain zuzen ere, euskal jauntxoek ez zutelako horren beharrik: *benetako jakituria* eta kultura Euskal Herritik kanpoko eskola eta unibertsitateetan eskuratzen zuten, horretarako ahalmena baitzuten. Euskaldunak ezin zuten euskaldun izan Euskal Herritik kanpo, eta Euskal Herrian bertan ez zuten baliabiderik *norbait* izateko.

Baliabide materialen gabeziaren ondorioz, euskaldun pobrea baliabide epistemologikorik gabe utzi zuten: euskarazko kultura eta hezkuntzarik gabe, hau da, gainerakoentzat pertsona razionala izateko beharrezkoa zen hori izateko aukerarik gabe. Diskriminazio ekonomikoak diskriminazio epistemologikoa sortu zuten.

Horrela, estereotipoa eta injustizia epistemikoak euskaldun pobreengan geratu ziren. Ez zutenez inongo baliabiderik *jakintzu* eta *razional* bilakatzeko (hau da, espainol izateko), euskaldunak *motz* izatera kondenatuak zeuden, beste euskaldun batzuek bizkarra eman ziotelako euskara eta euskal kulturari, hots, Euskal Herriari.

Injustizia epistemikoen eta pobreziaren arteko loturetatik ateratako ondorioak begiratu (Bayon 2019: 63-65), antzekoak plazaratu daitezke euskaldunei dagokienez. Alde batetik, baliabide materialen gabeziak euskaldun horien gaineko injustizia epistemikoak erreproduzitzen zituen. Ez ziren gai euskaldunaren irudi estereotipatu horretatik irteteko; izan ere, baliabide materialen gabeziak gain, hori egiteko euskaldun izateari uzteko presioa zegoen. Azken horretarako gai, ordea, ez ziren denak. Bestetik, euskaldun zirenez gero, jasotzen zituzten injustizia epistemikoen ondorioz, baita horrek sortutako estigmaren ondorioz ere, euren egoera pobrea erreproduzitzera bultzatzen zituen (euskaldunak ziren bitartean).

Injustizia epistemikoez sortzen dituzten kalte epistemiko eta praktikoei, euskal erakundeetan gertatutako gaztelaniaren inposizioa gehitu behar zaie, euskaldun pobreen interesak bertan defendatzeko aukera guztiak zapuztu baitziren. Bertako jauntxoak jada espainolizatuak zeuden, eta euren interes ekonomikoak Espainiara zuzenduta zeuden. Hala, inor ez zen arduratzen ez euskal herri xeheaz ezta euskal kulturaz ere. Boteretik erabat baztertuta geratzean (euskaldunak eta herri xehea izateagatik), euren egoera tamalgarriari konponbidea jartzeko are traba gehiago jarri zitzaizkien.

Azkenik, aurretik esandako guztiari gehituz gero euskal kulturaren ekoizpen eza eta eskola eta unibertsitate euskaldunen gabezia, argi baieztatu daiteke Euskal Herrian *ingurune kognitiboki pobrea* zabaldu zela, ez baitzegoen oinarritzko euskal ekoizpen intelektualik: bai euskaldun izateagatik, baita pobre izateagatik ere (une horretan bi horiek berdinduak egonik).

Sortutako ingurune kognitiboki pobre horrek hirugarren injustizia epistemikoa eragin zuen indarrez euskaldunengan: gaitasun kognitiboen kamustea (*ibid.*: 54-58). Batzuk epistemikoki kondenatuak jaio ziren euskaldun eta familia xumeetan jaio izanagatik. Baliabide materialik ez, hezkuntzarik ez, pizkunderik ez. Epistemikoki umezurtz geratu zen Euskal Herria.

Ondorio nagusiak

Ikus daiteke, beraz, inperioen logikan injustizia epistemikoez paper garrantzitsua joko dezaketela. Alde batetik, etsaia pertsona ez-oso bezala aurkeztean (adimenari eta kulturari dagokionez), inperialismoak legitimazio oinarriak aurkitzen ditu bere politika espantsionistak aurrera eramateko. Horrek bi ondorio zuzen ditu: konkistatuaren kultura (hizkuntza eta sare epistemologikoak) eta agentzia zuzen-zuzenean kaltetzen dira, hura hitzik gabe utzirik. Beste aldetik, inperioak onartzen dituen identitateen barruan mugitzea ezinbesteko bilakatzen da *pertsona oso* izatekotan, eta hala ez bada, hutsaltasun epistemologiko, politiko eta sozialaren dimentsioan baino ezin daiteke mugitu inor.

Euskaldunon historia ez da estrategia horien salbuespen izan: azaldu dudana bezala, euskaldunak zailtasun handiak zituen inor izateko, gaztelaua edo espainola ez bazen. Injustizia epistemikoa baldintzatzaile handiak izan dira logika horretan, eta horiengatik, hain zuzen ere, euskaldun batzuk jarri ziren Euskal Herritik kanpo begira. Begirada biraketa horrek, beste gauza askoren artean, euskaldunaren eta pobreen arteko berdinketa eragin zuen, aurrerago aipatu dudana moduan.

«Euskal Herria geuk galdu dugu» (Azurmendi 1992: 502). Behin baino gehiagotan argi eta garbi esango digu Azurmendik Euskal Herria euskaldunok galdu dugula, euskaldunok saldua izan dela. Orain arte deskribatutako historiak interpretazio manikeorako bidea zabaldu dezake, baina euskaldunon historia ez da espainol gaizto eta euskaldun zintzoen arteko dikotomia hutsa.

Beraz, euskal historiako gizandiak eta orrialde argiak bakarrik aipatzen dizkigutenei, orrialde ilunak non dauden, galdetu beharko diegu. [...] Beraz, orrialde ilunak bakarrik idazten

dizkigutenei, ba, ez diola inporta, esango diegu. Guk horregatixe nahi dugula etorkizun argiago eta Euskal Herri hobe bat. (*Ibid.*: 562)

Kanpotik etorrira ere, euskaldunen aurkako erasoak Euskal Herritik bertatik ere etorri dira. Gure historia ez da ez hain zuria ezta hain beltza ere. Ondo ohartarazten gaitu Azurmendik esanez arrisku handiena etxeko klase nagusietatik datorrela, horiek ez baitute birritan pentsatuko euren herria saltzea diru eta botere gehiagoren truk: klase-interesak nazio-interesaren gainetik, betiko elezaharra. Horregatik, hain zuzen ere, euskal kulturgintza ezin dugu euskal jauntxoaren eskuetan utzi, jauntxo horiek ez baitute bizi kultura herri euskaldunak bizi duten moduan. «Euskal Herriak ez du iraganaldi hobe behar. Etorkizuna behar du hobe», dio Azurmendik (*ibid.*: 560). Herria etxean uso, jauntxoak otso.

Oharrak

1. *Hutsune hermeneutikoak* gizarte baten funts hermeneutikoan, hots, baliabide hermeneutikoen multzo kolektiboan, dauden gabeziak dira. Esperientzia bat berez ulergarria izanik, hura ulertzeko baliabide hermeneutikorik ez dagoenean gertatzen da. Injustiziei dagokionez, baliabide falta hori arrazoi identitarioei dagokie, hau da, talde batek ez duenean behar bezainbeste indar funts hermeneutiko horri ekarpenak egiteko. Adibide esanguratsua da *sexu-abusu* kontzeptua, zeinaren existentziarik gabe emakume asko ez ziren gai pairatzen zuten esperientzia bat deskribatu edo ulertzeko. Esan beharra dago, injustizia hermeneutikoari dagokionez, zenbait kritika egin zaizkiola Frickerri, esanez arazoa ez direla soilik *hutsune hermeneutikoak*. Baliabide hermeneutikoak erabili edo aukeratzeko orduan izaten den joera ere injustizia hermeneutiko gisa har daitekeela diote batzuek (Haslanger 2018: 10-11).
2. *Frikzio epistemikoak* norbaitek bere ideiak gainontzekoekin alderatzea esan nahi du, horiekin *frikzio* bat sortuz. Alderaketa edo plazaratze hori, hain zuzen ere, norberaren ideia, pentsamendu edo sinesmenaren zuzentasun edo okertasunaz ohartzeko oinarritzko baliabidea da, hau da, pentsamenduan aurrera egiteko oinarritzko mekanismoa.
3. «Our mental lives are shaped to enable us to fluently engage in the social practices of our milieu». Nik itzulia.
4. «These occur when a group's actual or imagined epistemic weaknesses are wrongly taken to be due to their nature, or essential to them as a group». Nik itzulia.
5. Gai horri dagokionez, bestelako objektutzei garrantzia kendu gabe.
6. Elementu horiek guztiak aztertuz, ikus daiteke aurreiritziak zergatik diren Fricker hainbeste kezkatzen duten auzia. Nahiz eta, nire ustetan, injustizia epistemikoak aurreiritzietara soilik ez diren mugatzen, identitate bat irudikatzean determinagarriak izan daitezke, eta guztiz baldintzatzen du identitate horrekiko joera. Euskaldunen historiaren kasuan hori argia da.
7. Kontuan hartu behar da euskaldunen gaineko burla eta irainak etengabeak zirela, baita klase nobleen artean ere. Testu horiek, hain zuzen ere, akusazio horietatik defenditzeko helburua zuten, betiere interes ekonomiko batzuei erantzunez (Azurmendi 1992: 323).

Bibliografia

- Arizmendiarieta, J. (2013): *Gogoetak*, Arrasate, Emun Kooperatiba Elkarte.
- Azurmendi, J. (1992): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia, Elkar.
- Bayon, U. (2019): *Pobrezia, giza ahalmenak eta injustizia epistemikoak*. Filosofiako Gradu Amaierako Lana. UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.

- Fricker, M. (2017 [2007]): *Injusticia epistémica. El poder y la ética del conocimiento*, Bartzelona, Herder.
- Gabilondo, J. (2012): 'XVI. mendetik XX. mendera: apologistak eta subjektu euskalduna', in A. Aizpuru, B. Altonaga, I. Gallettebeitia eta A. Olariaga (argk.): *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*, Eibar, UEU, 9-27.
- Grosfoguel, R. (2014): 'Epistemic Racism/Sexism, Westernized Universities and the Four Genocides/Epistemicides of the Long Sixteenth Century', in M. Araújo eta S. Maeso (argk.): *Eurocentrism, Racism and Knowledge*, Londres, Palgrave Macmillan, 22-46.
- Haslanger, S. (2002): 'On Being Objective and Being Objectified', in L. Antony eta C. Witt (argk.): *A Mind of One's Own. Feminist Essays on Reason and Objectivity*, Boulder, Westview Press, 209-253. 2. argitalpena.
- (2017): 'Objectivity, Epistemic Objectification, and Oppresion', in I. Kidd, J. Medina eta G. Pohlhaus (argk.): *The Routledge Handbook of Epistemic Injustice*, New York, Routledge, 279-290.
- (2018): 'Cognition as a Social Skill'
(https://sallyhaslanger.weebly.com/uploads/1/8/2/7/18272031/cognition_as_a_social_skill_-_final_apr.pdf).
- Txapartegi, E. (2020): 'Injustizia epistemiko inperiala'. Argitaratzear.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus